



BOOKTEGI

# beldarrekin

OIHANA ARANA

E  
l  
k  
a  
r  
r  
i  
r  
a  
k  
u  
r  
r  
i



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

OIHANA ARANA

# beldarrekin

*Enterré un grito. Nido de procesionarias.*

Chantal Maillard

E  
l  
k  
a  
r  
r  
I r a k u r r i z

Umetako mendi irteerak ditu gogoan. Praka barrenetan lokatza pilatzen zitzaion beti. Ordukoa da bideari ez beste guztiari so egoteko duen ohitura. Eskukadaka erauzten zuen belarra, intsektuak pausatzen zituen soinburretan. Loreak ahoratzea maite zuen bereziki. Basoak ez zituen batere gustuko: korrika zeharkatzen zituen pinudiak, pinu-beldarren habiak buru gainera eroriko zitzaizkion beldurrez.

Pinu-beldarren habia bat dauka orain eztarrian, aho-gingiletik zintzilik. Irensten duen berba bakoitzak areagotu egiten du dilinda. Edozein momentutan eroriko da, zapla!, urdaileko pareten kontra. Beldar aldra hestegorrian gora igoko zaio orduan, prozesioan. Eta ahotik egingo du ihes haietako bakoitzak, banaka-banaka, gorputz osoa laztanduz, behatz txikiko azkazal lotsagarriki txikia atzean utzi eta azala lurrari eman baino lehen.

Lur izatetik urrunegi dago giza azala. Egiari zor, munstro gautarren batek edo bestek ahoratu nahi izan du I-ren azala hark lurra ahoratu nahi izaten duen irrirtsaren antzekoarekin. Baina horrek ez ditu inondik ere berdintzen. Nork ez du amestu balkoiko geranioak birlandatzean azkazalek hartzen duten kera hori hortzek ere hartzearekin? Nutella koilarakadaka jatea baino suspergarriagoa izango da, seguru. Hala ere, lurrak ez du lur jota dauden gizabanakoen bazka izateko funtzioa. Alderantziz, akaso, bai. Baina ez dugu suizidioaz berba egingo.

Ondo baino hobeto daki I-k lurra irentsi nahi izatea eta ekintza horrek pentsamendua araztuko diolako sinesmena, hau da, lurrari eskusiboki bere interesekoa den funtzio berri bat esleitzea, bere azalarekin duen disforiaren adierazgarri gordin bat baino ez dela.

Ez dakit barrunbe lirdingatsu hori estaltzen dion paper pikortsu horrek azal izena merezi ote duen. Zein da azalaren helburua? Zer bat zer hori al da dagokion helburua betetzen ez badu? Demagun pinu hektarea bat, 1111 pinu. Horiatarik bat erori, baina zuhaitz enborraren kraska aditu duen belarririk egon ez bada, soinu hori existitu da? Ez. Soinuari ezin zaio entzuna izatea ez den beste funtziorik lotu. Entzuna ez bada, ez da.

Orduan, azala azal al da ezein azalek ukitzen ez badu? Ukitua izatea al da azalaren helburua? Beharbada ez. Batzuetan kontrakoa uste izan arren, posible da helburuez pluralean hitz egitea. Helburu bat baino gehiago dauka denak. Baina helbururik behinena. Lehen helburua. Horri deitu behar zaio helburu.

Beldarrak ez dira kasualitatez helduko lurrera, orografia gorabeheratsua baino zelaidiak zaizkie bizigarriago, lautada. Pausuen alferrikakotasunaz ohartzeko edo. Bidean aurrera eta aurrera eginagatik puntu berean jarraitzen dutelako sentipen horrek mantentzen du haien ibilera nekatua bizirik. Helmuga zein den ez jakitea, horixe da akaso etsita bizitzeko arrazoirik oinarritzkoena.

\*\*\*

Eguerdia da, baina ez du ematen. Mantapean ezkutatuta dauka burua. Ez du gosalduta eta ez du bazkalduta. Telefonoa itzalita igaro ditu azken bi egunak. Piztu, ez piztu daramatza minutu batzuk. Ez da erraza aukeretan okerrena zein den asmatzea. Piztu ezean, ez jakiteak sortzen dion pisu horri egin beharko dio aurre, eta eguna ohean igarotzea ez da aurre egiteko manera bat. Barka, bada. Baina ez kasu honetan. Piztuz gero, jaso nahi ez dituen mezu pila bati erantzun beharko die, edo are okerrago: ez du mezu bakar bat ere izango. Laneko e-mailen bat, agian, baina gehiago ez.

Mantapean da, baina ez geldi. Tarteka haragi zatiren bat ikus daiteke kanpotik, baina adi-adi egon behar da horretarako. Erreka bazterretik amuarrainen jauziak ikusi nahi direnean lez. Osaba zuen oso arrantzalea, eta hark erakutsi zion amuarrainek salto egiten duten eguna ez dela arrantzan egiteko aproposa: zorionsuegi egoten ei dira, eta zorionsu dagoen inork ez du soa arto ale batean paratuko. Zoriontasunak itsutu egiten gaituelako mitoa benetan da zarpailkeria; frustrazioak garamatza arto aleen

gozotasunean itsu-itsuan sinestera, eta, beraz, amua eztarriratzera. Halako egunetan hobe da bainujantzia jantzi eta amuarrain izatera jolastea.

Amuarrainek behin eztarriraten dute amua. Ez-arrainok zorte kaskarragoa dugu horretan. Behin baino gehiagotan ahoratzen ditugu, eta bata bestearen atzetik, gainera. Aurrekoaren zauria erabat sendatu aurretik, to hurrengo! Zintzurra zaurituta izatea zer den ahaztea ez da eta guztiz komenigarria.

Euliak uxatzen ari dela dirudi: eskuekin hasi da lehenik, eta oinekin jarraitu du gero. Baina ez da eulirik. Bazen bat, baina ihes egin du. Ez dakit izerdi tantak edo pentsamenduak uxatzeko ahaleginetan dabilen. Alfer-alferrik da: uxatzea lortuz gero berriak sortuko zaizkio segituan. Berdin izerdi tantak edo pentsamenduak. Baina pentsamenduak bereziki.

Piztu egin du azkenerako. Hamar dei galdu. Amaren bi eta aitaren hiru. Ezezagun zaizkio gainontzeko zenbakiak. Mugikorra mukizapiz betetako mesanotxearen gainean utzi eta mezuen ondoriozko dardarizoa nabaritzen hasi orduko, azkar-azkar utzi du ohea. Komunean egongo da ordu erdi luzez. Mugikorra berriz itzaltzeko bulkadari eusten, edo aspaldi hartu ez duen bainu beroa hartzen, besterik gabe. Mezu batzuei aurre egiteko erdi-duin sentitzea komeni izaten da.

\*\*\*

Egongelako besaulkian eseri da, biluzik. Horren azal garbiak ez zuen maindire-sorta likatsu hori merezi. Txahal jaio berriak lehen pausoak egin ahal izateko baliatu ohi duen energia maila antzekoa aurkitu du erraietan nonbait, eta armairuan hil pare bat zain egondako laranja zatitzeari ekin dio lehen; zuku lirindu hori ari da edaten.

“Kaixo, ama! Kaixo, aita! Ikusi ditut zuen deiak eta mezuak. Ondo nago, lasai. Besterik gabe, lan pila batekin. Horregatik izan dut mobila itzalita. Egingo dugu berba lasaiago nagoenean. Besarkada handi bana. Laster arte!” Audio mezua amaitu orduko ikusi du K-ren mezu mordoa. Azkena baino ez du irakurri. “Bazekinat hibernatzen ari haizela, baina berba egin behar dinagu. Bihar hire etxean afalduko dinat; lasai, nire esku jatekoa”. Z-ren hiru mezu eta T-ren bost. Beste ezer irakurtzeko tartea izan aurretik erruz itzali du berriz telefonoa.

Horrelako planak behar ditu I-k, prokrastinatu ezin direnak. Bat-batean datozenak. Besaulkitik saltoan altzarazten dutenak. Basurdearenaren antzeko suhartasunez garbituko du sukaldea, egingo du ohea, txukunduko du mahaia, botako du zaborrontzietan pilatu duen iragan guzti hori, eta K iritsi baino hiru minutu lehenago eseriko da besaulkian berriz, poema liburu atsegin batekin hibernazio ideal bat performatzera. Bakardadea erromantizatzen. K-k gertatzen ari denaren berri izango ez balu moduan.

Ez ditu Z-ren mezuak irakurri nahi. Ez irakurtzeak ez du existitzen ez direnik esan nahi, baina erreal izatetik urrunago daude horrela. Mezu bat mezu izango al da hartzaileak irakurtzen ez badu? Ez irakurtzea irakurtzeko manera bat da. Ez onena, baina bat. Mezu dira, beraz. Bulkadarik gaiztoenari kasu egitekotan, konprenitu ezin duen hori guztia behin eta berriz azaltzeko erregutu bitartean mailukadaka xehatuko lituzke Z-ren azkazalak, banaka-banaka. Bere hatz-bizarrak hortzekin kentzearekin konformatzea erabaki du. Berba egin behar du Z-rekin. Ez du nahi, baina behar du. Orain dela hamabost urte inguru ezagutu zuten elkar, I-ren familia hirira aldatu zenean, eskolan, Z-k pertsona ororen lagun izateko duen abileziaren ondorioz, seguruenik. Itxuraz ona izan da haien arteko harremana, horren ona ezen gatazkak konpontzeko ez baitute inoiz barbarik egiten. Segituan ahazten ei zaizkie. Pentsa zer nolako bazka den hori beldarrentzat.

\*\*\*

Beste inork baino hobeto ezagutzen dute elkar K-k eta I-k. Elkarren antz handia zutelakoan inguratu ziren elkarrengana, eta horren antzekoak ez zirelako jarraitu zuten elkarrekin, gero. Benetan ezberdinak direlako jarraitzen dute, gertatutakoak gertatuta ere, asteazken ilunabarretan elkartzen.

K ez litzateke inoiz hibernatzera ausartuko, ez da ihes egin zalea. Inoizko ur jauzirik hotzenaren azpian balego ere, luzaroan eutsiko lioke hotzari. Bertantxe egongo litzateke: hezurren dardarari ezin eutsita, behatzak sentitzeari utzita, ezpainak more, eskuak zuri, baina bertan. Urak haren azala ukitu orduko sentitutako plazeraren eta minaren arteko zer horren ñabardurak deskubritu guran. Plazera eta mina elkartzen diren puntu hori omen da askatasuna. I ez dago hori konprenitzeko prest, erreka bazterrean egongo litzateke, toalla esku biek in oratuta, zain. Zain egotea plazera eta mina elkartzen dituen ekintza izango ez balitz moduan.

Oraindik ez da konturatu, baina patrikan harri bat eramatearen parekoa da I-rentzat K aldamenean izango duela jakitea. Harri txiki bat, zama astunegia izatera iristen ez dena. Laku batera intentzioz jaurti eta ur-azalean bospasei jauzi egingo lituzkeen horietakoa. Patrikan harri bat eramateak oinak lurtean izaten laguntzen dio I-ri, edo hori uste du berak. Gogorarazi beharko lioke inork inoiz (ahalik eta lasterren) harri bat harri bat dela. Eta K K dela, besterik gabe.

Besteak idealizatzeak norbere buruaren gutxiespena dakar eta gutxiespenak areagotu egiten du idealizazioa. K-k badaki hori, eta egoera ahalik eta zintzoen kudeatzen saiatzen da, baina ba al dago boterea kudeatzeko manera zintzorik?

\*\*\*

Asteazken ilunabarra. Orduantxe lana amaitu berri, gaur baino apur bat gazteagoa eta langileagoa zen I. Z-k deitu zion, tabernan zeudela eta joateko. Bertan ezagutu zuen K; Z-ren ikaskide ohia omen. Sandalo usaina zuen, granate koloreko ezpainak eta berba egiteko gogoa. I-k ez zuen elkarriketaren dinamika aski ondo ulertu, baina gustura egon zen.

Hiru egun beranduago jaso zuen haren mezua, larunbat goizez. Aurrekoan pozik egon zela eta iluntzean buelta bat ematera animatuko ote zen. Ordurako K-k bazekien I-rekin egon nahi zuela, haren aldamenean lo egin nahi zuela gau hartan. I ez zen ezertaz konturatu, harik eta etxera iritsi ziren arte. Bertan hasi zen hilabeteren buruan bost urte beteko lituzkeen bikote-harremana. Lituzkeen.

Aski ulergaitzak dira amaitu gabe amaitzen diren harremanak, azalez mudatu arren berdin jarraitzen dutenak. Zaila da aldebikotasuna kudeatzea, zaila da bikote ohia eta laguna izatea; ar zailagoa, bikote ohi izan nahi ez eta lagun izan nahi izatea. Harremanaren baitako ardurak ez baitira berdin kudeatzen alde batean eta bestean.

\*\*\*

I-k badauka K-k eta Z-k duten harremanaren berri. Ez bietako inork esanda; T-rekin ere ez du honi buruzko iritzirik konpartitu. I-k badaki, eta ez da berak uste duelako eta bere usteak askotan egia bihurtzen direlako bakarrik. Badaki badakielako.

Aski ongi ezagutzen ditu K eta Z. Irekia da K, jatorra, ederra, adeitsua. Adeitsuegia. Z-ren harremantzeko moduak pertsona adeitsuekin bat egiteko eraikia dirudi, deserosotasunak irentsiko dituztenekin. I eta K-ren artekoa amaitu orduko estutu zen Z eta K-ren artekoa. Asko miretsi izan dute elkar beti, eta miresmena harreman askoren oinarrian dagoen sentimendua da, aldebikoa denean bakarrik dena ona. Ekidin beharreko aldebakartasun horrek hautsi zuen T eta Z-ren artekoa, adibidez.

Eztarriko mina sentitzen du I-k. Ez da hoztu, ez da etxean biluzik ibili delako. Erredura da sentitzen duena. Beldarrek eragindakoa. Hestegorrian daude; badatoz kanpora. Bi eskuekin estali du ahoa, listua irentsi eta irentsi dabil. Erre diezaiotela urdaila lehenengo. Urdaila ez da horren organo oinarrizkoa, bada oinarrizkoa, baina ez azala bezainbeste. Duintasuna galtzeraino ari da erreguka eskatzen erre diezaiotela urdaila lehenengo. Sor diezaiotela ultzera erraldoi bat, zula diezaiotela urdaila, bertatik konkistatu gorputz osoa. Baina azala ez, azala beharko du oraindik.

I-k badaki zer gertatu den, Z-k ezkutatu nahi izan dion hori guztia da gertatu dena. K-k esan izan dio zer edo zer, baina benetan jakin arte ez du onartu nahi izan.

Harrigarriki zaila da norbere buruaren aurrean duintasuna galtzea, baina gorputz honetan ez dirudi horren gaitza.

\*\*\*

Bihar goizean garbituko dituela hitzeman eta harraskan utzi ditu afalondoko ontziak I-k, bihar arratsaldean garbituko dituela badakien arren. Hausnartzeko tartea beharko du goizean. Entzundakoa digeritu behar du. Jan ez du egin, bihotzerrea zuen.

Bederatziak aldera agertu da K. Motxila eta guzti, ohi duen gisan. Afaria berotzen jarri orduko igaro da elkarrizketa antzu izatetik astun izatera. K eta Z-ren artekoa egia da. Gertatu da. Gertatzen ari da. Baina T-k ez daki, eta I-k oraintxe jakin du. Bizkarra paretari emanda, geldi-geldi, isilik egon da I istorio osoa aditu arte. Dena jakin nahi du, den-dena. Mina sentitu nahi du. Min erreala. Ez du aski urdailean nabaritzen duen kilima-uholdearekin.

Z-ri deituko lioke oraintxe, edo T-ri. Eta esateko duen dena esan, Z-ri agur esan, eta T-ri zauriak miazka diezazkion eskatu. Esateko duena esan, K-rekin egingo duen moduan, baina ezin da. Ezin du. Beste inork ez daki I-k badakiela dena, bazekiela K-k kontatu aurretik ere, eta bakarrik dagoela berriz. Beno, beldarrekin. Horren informazio esanguratsua partekatzeak dena aldatuko luke, baina dena aldatzea ez da beti ona. Garrantzitsua da beldarrak azalpean eramaten jakitea.

“Hemen garrantzitsua dena ez da nik sentitzen dudana, nik sentitzen dudanaren gaineko ardura nork duen baizik. Nik badakit sentitzen dudan minaren zein zati den neure-neurea. Baina gainontzeko zatiari ezin diot nik bakarrik aurre egin eta badakizu zergatik den, gainera”. Halaxe bota dio K-ri, eta badirudi hori dela esateko duen dena. Ohean etzan da K-k afaria amaitu bitartean. Irakiten zeukan salda; tarte baterako lana badu hori irensten.

Haserrea ezin kudeatuta dabil I. Otorduak ez dira negar egiteko momentuak, ezta eztabaidatzekoak ere. Otorduak otordu dira eta kito. Janaria irenstea da helburua, ez beste ezer. Eta gauza gehiago irentsi behar badira, ezinezkoa da jatea. Ezin da. Berak ez dakiena da etzanda negar egitea ere ez dela egokiena; malkoek belarriak aurkitzen dituzte, eta entzunbidetik sartzen dira aurrez entzundako guztia nahasgarriago bilakatzeko helburuarekin. Negar egitea ona dela esan ohi den arren, ez dago negar egiteko manera onik.

Gertatuko dela jakin eta gertatzen den horrek sorpresaz gertatzen denak baino nahasmendu handiagoa eragiten du. Bigarren kasuan, amesgaiztoak eta buruhausteak a posteriorikoak dira. Ez dira bi aldiz gertatzen.

Biak daude munduarekin haserre, biak daude gaizki, biak bestearen mina kudeatzeko prestu. Baina nola kudeatzen da bestearen mina norberarena gutxietsi gabe? Nola egin daiteke hau parekoarekin hasarretu gabe? Norbere buruari ostikoka hasi baino lehen?

\*\*\*

Katakume bihurtu dira elkarren besoetan, laztan eske azalak, halabeharrez laztangintzan. Pijama jantzi gabe eta izara zikinen gainean.

Ohelagun txarra da I: aldamenekoa lokartzera doan unean bertan hasten da hizketan, eta hitz egin ahala pentsatzen duenez, luze egoten da berbetan. K-k badaki hori, bazekien afaldu bitarteko esaldi zozo hori ez zela I-ren buruan zegoen bakarra; ezinezkoa zen. I-rengan zerbait aldatu ahalko balu, hori aldatuko luke seguru; hori, eta begietara begira hitz egiteko ezintasuna. Begirada galdua izaten dute hitz egin ahala pentsatzen duten pertsonak.

I-k ez du barkamen-eskaerarik exijitu. K-k ez dio barkamenik eskatu. Batzuetan aski da elkarri helduta negar egitea, mina ez baita beti singularrean agertzen: aldebikoa da normalki, eta plurala, harreman honi dagokionean.

I-ren itxialdiak amaiera behar zuen, bizitza errealarari ihes egiteak ez ditu arazoak konpontzen. Arazoak ez dira berez konpontzen. Atea irekiaraziko duen indarren bat behar da, gorputz bat. K-rentzat errazagoa litzateke ezer kontatu beharrik ez izatea, baina I-rentzat ezinbestekoa zen egia jakitea eta giza-harremanek ez dute beti norberak nahi duen moduan funtzionatzen; are, ez dute inoiz hala funtzionatzen moralki onargarriak izatekotan. Gaur ez dira haserretu, nahita egin dute, ohi duten gisan. Deitoragarria litzateke atea dela eta ez dela erresumintzea.

Kasu egin diote beldarrek, gorputz osoa hartu diote, zauritu dizkiote erraiak, irentsi dituzte irentsi beharrekoak, ez dago beste irtenbiderik. Ahotik ez ezik, zirrikitu guztietatik ari dira agertzen. Ilarak osatzen dituztela dirudi, baina ez da hala: segituan hartzen du bakoitzak komeni zaion lekua, inurri ilara atzamarrez apurtzen denean moduan, sakabanatzen ari dira. K-ren gorputza ere hartuko dute laster.

\*\*\*

Mina sentitzeak kalte egiten du, baina ez da bere horretan ekintza kaltegarria; testuinguruari erreparatu behar zaio.

Beldarrek hartu dute I-k betetzen zuen azalera osoa. Apenas ageri da haren azalaren zantzurik pijama negutar bat itxuratu nahi duen jantzi deseroso horren azpian. Bero egiten du etxean azalorde horrekin ibiltzeko. Udaberria sortu bide da: pijama eta izarak astero aldatzeko garaia. Bere atzamarrek baliatu ditu animalia iletsuok banaka-banaka komuneko zuloaren aldirietan kokatzeko. Ez da hauek itozteko bezain krudela, baina ura aukeratzen baldin badute, irribarre egingo du, sano.